

**III. ATALA****EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA****Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak Saila**

Ebazpena, 2019ko abenduaren 2koa, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Bizkaiko lurralde-ordezkarirena, zeinaren bidez iragartzen baita zerrendatutako finkak okupatu aurreko aktak egiteko deialdia; finka horiek Mungiako eta Gamiz-Fikako udallerrietan daude, eta «13,2 kV-ko goi-tentsio-ko linea elektrikoa, «Markosene-Larrabetzu,cto.9» izenekoa, Markosene TArren eta 9148 euskarriaren artean eta haren adarrak» proiektuaren eraginpean daude. Linearen titularra i-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU da.

— *Erreferentzia:* (48-AT-Y-2019-11) IFT/YMM.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Bizkaiko lurralde-ordezkarirena 2019ko urriaren 1eko Ebazpenaren bidez, aipatutako instalazio elektrikoa onura publiko-koa dela deklaratu zen.

Sektore Elektroari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 55. artikuluan xedatutakoaren arabera, onura publikoko deklarazioak berekin dakar eraginpeko eskubideak eskuratzea edo ondasunak okupatu beharra, eta, ondorioz, okupazioa premiaz egin beharra, betiere Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan zehaztutako ondorioetako.

Ondorioz, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluekin bat (1954ko abenduaren 17ko BOE), lurralde-ordezkaritza honek erabaki du eraginpeko eskubideen eta ondasunen jabeen eta titularrei deitzea Mungiako eta Gamiz-Fikako udaletxetara joan daitezen (Bizkaiko Lurralde Historikoa), udalerriri horietan baitaude eraginpeko ondasunak. Beraz, hor egingo dira eraginpeko ondasunak okupatu aurretiko aktak eta, beharrezkoa bada, behin betiko okupazioarena.

Eraginpeko ondasunetan edozein eratako eskubideak edo interesak dituzten pertsona titularrak eta horretan bestelako interesik duten gainerako pertsona guztiak ere joan daitezke bilerara, bai zuzenean, eurak joanda, bai zeharka, euren ordez dagokion baimenarekin besteren bat bidalita; era batera zein bestera, titulartasuna egiaztatzeko agiriak eraman beharko dituzte, baita kontribuzioko azken ordainagiria ere. Hala nahi izanez gero, peritua edo notario batek lagunduta ere joan daitezke.

Honekin batera doan zerrendan aditzera emandako egun eta orduan jasoko dira aktak, eta hori zitazio-zedularen bitartez emango zaio jakitera titular bakoitzari, non lekua, eguna eta ordua adierazi beharko baitira. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan ezarritako argitalpenak ere egingo dira.

Halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Araudiaren 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriaz, bai interesdunek bai argitaratutako zerrendetan aipatu ez diren interes errealean eta interes ekonomikoen titularrek nahi adina alegazio aurkez ditzakete, eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrendetan egindako akatsak zuzentzeko, hain justu ere idazki baten bitartez Bilboko lurralde-bulegoan (Concha Jeneralaren kalea 23, 5), aldeztu aurretiko aktak jasotzeko izendatutako egunera arte.

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikulua bigarren arauan xedatutakoaren arabera, iragarki honek hauei jakinarazpena egiteko balioko du: identifikatu gabeko interesdun posibleei, eraginpeko ondasunen eta eskubideen titular ezezagunei, eta helbide ezezaguna dutenei.

Bilbon, 2019ko abenduaren 2an.— Bizkaiko lurralde-ordezkaria, Adolfo González Beruete



ERANSKINA

ALDEZ AURRETIKO AKTETARAKO ZITAZIOA

13,2 KV-KO GOI-TENTSIOKO LINEA ELEKTRIKOA, «MARKOSENEN-LARRABETZU, CTO. 9»
IZENEKOA, MARKOSENEN TA-REN ETA 9148 EUSKARRIAREN ARTEAN ETA HAREN
ADARRAK, MUNGIAKO ETA GAMIZ-FIKAKO UDAL-MUGARTEETAN

Espedientea: 48-AT-y-2019-11

Finka (proiektuaren arabera)	Katastroko Datuak			Titularra	Hilabe- tea	Egu- na	Ordua	Udala
	Polig.	Part- zela	Izaera/Laborantza					
01-15	012	231	Landalurra Egur-basoa	Ateca Llona Martín	Urtarrila	21	9:30	Mungia
01-25	017	040	Landalurra Belardiak	Llona Muguruza Gregorio	Urtarrila	21	9:50	Mungia
01-41	016	216	Landalurra Belardia	Garaizar Goitia María Elisa	Urtarrila	21	10:10	Mungia
01-54	017	197	Landalurra Belardiak	Torrentegui Egusquiza Jesús	Urtarrila	21	10:30	Mungia
01-71	015	052	Landalurra Belardiak / Egur-basoa	Gangoiti Elorriaga María	Urtarrila	21	10:50	Mungia
02-06	003	240	Landalurra Frutarbolak / Alfer-lurrak	Lasarte Narbaiza Elena	Urtarrila	23	9:30	Mungia
02-07	003	141	Landalurra Alfer-lurrak	Esparza Escalona José María	Urtarrila	23	9:50	Gamiz-Fika
02-34	007	225	Landalurra Belardiak	Ayarza Dañobeitia Sabina	Urtarrila	23	10:10	Gamiz-Fika
02-36	007	240	Landalurra Frutarbolak / Sastrakadiak / Alfer-lurrak	Buenechea Sáez Javier	Urtarrila	23	10:30	Gamiz-Fika
02-40	007	354	Landalurra Lan-urra / Belardiak / Frutarbolak	Uriguen Urrutia Miren Eguskiñe	Urtarrila	23	10:50	Gamiz-Fika
02-45	007	005	Landalurra Belardiak	Torrentegui Elguezabal Agustín	Urtarrila	23	11:10	Gamiz-Fika
02-46	007	393	Landalurra Sastrakadiak	Isasi Torrentegui María Lourdes	Urtarrila	23	11:30	Gamiz-Fika
02-50	007	008	Landalurra Frutarbolak / Belardiak / Egur- basoa	Legarreta Isasi María Ángeles	Urtarrila	23	11:50	Gamiz-Fika
02-59	002	583	Landalurra Frutarbolak / Belardiak	Bilbao Arriaga Bartolomé	Urtarrila	23	12:10	Gamiz-Fika
02-66	006	072	Landalurra Belardiak	Echegaray Mallona María Cristina	Urtarrila	23	12:30	Gamiz-Fika